

Kable bidezko telebista Hego Euskal Herrian

C. Peñafiel, I. Zabaleta, T. Agirreazaldegi, N. Xamardo
UPV-EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko
Kazetaritza Saileko ikerketa-taldea

Artikulu honetan, 1998. urtean Hego Euskal Herrian kable-telebistaren egoera adierazten da, kable-lizentzien lehiaketen berri emanez. Euskal Autonomi Erkidegoan *Euskaltel* eta Nafarroan *Retena* izan dira bigarren kable-kudeatzaile lizentzia lortu dutenak. Bi horien eta kable-kudeatzaile txikien ezaugarriak aipatzen dira.

This article analyses the situation of cable TV in 1998 in the Basque Country, after the licensing process. *Euskaltel* got the second cable-TV licence in the Basque Autonomous Region and *Retena* in Navarra. It explains the characteristics of these two and of other local cable operators.

1. Kable bidezko telebista, abian

Beste zenbait Autonomi Erkidegotan gertatzen den bezala, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroakoan ere berandu iritsiko da kable bidezko telebista, satellite bidezko telebista digitalaren atzetik. Edonola ere, *ordaindutako telebista*¹ mota hauek izan dira multidifusio edo hedapen anitza eskaintzen lehenak, hau da, anitz kanal eta anitz programazio.

Euskadi aitzindari izan zen zuntz optikoko sare-sorketan eta, beraz, gainerako Autonomi Erkidegoen aurretik abiatu zen; gaur, oster, ez dago diferentzia handirik espainiar estatuko Erkidegoen artean.

Bai Euskal Autonomi Erkidegoan (hiru herrialde) bai Nafarroan (herrialde bakarra) barruti bakarreko formulak aukeratu dira kable-telebista eskaintzeko eta ez, hasieran uste zenez, udal-barrutiak. Urrats honek adierazten duenez, telebistan negozioaren bidea hartu dela esan daiteke, nahiz eta, jakina, barruti bakar horrek alde positiborik ere baduen, hots, bermatu egiten duela kable-kudeatzaileak erabiltzaile guztiei –hiri handiko, udalerrri txikiko zein nekazaritza-alorrekoak izan–zerbitzu beretsua eskaintzea, eta ez soilik hiri handikoei, merkatu potentzial handiena hor egon arren.

Nafarroan amaitu da kable bidezko telebista ustiatzeko lehiaketa eta RETENAK (Nafarroako telekomunikazio-sarea) irabazi du².

Euskal Autonomi Erkidegoan, eskariak egiteko lehiaketa-epea 1998ko ekainaren 3an amaitu zen eta, ondoren erabaki zenez, EUSKALTELeK irabazi du bertako bigarren kable-kudeatzailearen lizentzia; lehenbizikoa Telefónica-ri baitagokio espainiar legez.

1.1. Euskal Autonomi Erkidegoa

Euskadik aspaldi egin zuen teknologia berrietarako azpiegitura eta ekipamenduetarako plangintza zabalaren aldeko apustua, aldi berean, gure herriaren identitate-zeinuak garatzeko kultur proiektua aukeratuz.

Gogora dezagun telekomunikazio-proiektua ez dela batere berria Euskadin. Laurogeiko hamarkadaren erdialdean, mintzagai zen Bilborako kable bidezko telebistarako aurreproiektua, zeinaren bidez balio erantsiko zerbitzu-mota batzuk eskainiko ziren eta, horrez gain, gasifikazio-lanak aprobetxatuz, zuntz optikoko sarea egiteko aukera bazegoen. Kontua da, talde ezagun batzuk, hasieran, proiektuaren alde agertu zirela, eta, gero, lege-hutsuneak zirela-eta, beldurra edo izan zutela. Jaurlaritzako Industri Sailak proiektuari ekin zion legearen muga-mugan, eta, 1993an, EuskalNet Elkarte Publikoa sortu zen, beste eginkizunen artean, azpiegiturak sortzeko, telekomunikazio-planetan esku hartu eta konbenioak sinatzeko erabiliko dena (Aranbarri 1995: 7-9).

Euskal Autonomi Erkidegoan duela bost urte gauzatu zen zuntz optikoko sarea Estatu espainiarrean daudenetako aurreratuen izan daiteke. 1995ean, kablezko

1. Hilero dirusari bat ordaintzea kanal eta programazio sorta bat ikusi ahal izateko.

2. Informazio hau kable-kudeatzaileei buruzko atalean zabalduko da.

200 bat km.ko enbor-sarea (bakoitzak 64 zuntz dauzka) eta 800 km.ko kanalizazioa egin zen. Urte horren matxorako, 11.000 milioi pezetatako inbertsioa egin zen. Euskal Telebistako zuzendari-ohi eta, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako prentsa-kabineteko burua den Aranbarriren ustez, zalantzarik gabe, Estatu espainarreko sare autonomorik garatuena eta sektorekoen inbidia da sare hori (1995). Euskalnet-en sare fisikoa EITBren ikus-entzunezko banaketaren, zentro teknologikoen, alor akademikoen eta administrazio publikoen premiei erantzuteko sortu da.

Bestalde, zuntz optikoz kableatzeko proiektu honek Eusko Jaurlaritzako zenbait sailen arteko liskarrak piztu zituen. Teknologia berriekiko sentibera zirenek egin beharreko inbertsio guztiak bultzatzen zituzten eta, aldiz, edukien politikaz eta euskal subiranotasunerako kultur proiektuaz kezka handiagoa zutenek, ez (Aranbarri 1995: 12): «Hemendik aurrera, nazio-subiranotasuna ez dago seinale-eramaleen jabeen esku, zerbitzu eta edukien politikan eragiteko gaitasunean baizik, hedapen-sistema eta euskarriaren jabegoa alde batera utzita» (Aranbarri 1995: 15).

Aipatutako txostenean Aranbarrik idazten duenez, Euskal Herriaren baldintza bereziak kontuan hartuz, hiru ideia nagusi hauek bereganatu beharra dago:

1. Ikus-entzunezko eta multimedia-sektorearen izaera estrategikoa eta aberastasun-sortzailea.
2. Ideien eta edukien ekoizpena ez da gastu arrunta, beraz, ekidin edota ahal den neurrian murriztu beharrekoa.
3. Subiranotasuna, batez ere, edukietan dago.

Halaber, duela urte batzuk sarea ezartzean izandako nagusitasuna eta abantaila ez da, jadanik, hainbestekoa, zeren, 1998an Euskaltel kable-kudeatzailea abian jarri zen arte ez baitzegoen espero ziren telekomunikazio-zerbitzu osagarriak (irradi-banaketa, telebista, posta elektronikoa, datuak eta ikus-entzunezko sektoreari dagozkion beste hainbeste produktu).

Zentzu honetan, kontuan hartzekoa da Eusko Jaurlaritzako Industria Sailak egindako adierazpena, hots, Energiarako Euskal Entea (EVE) aldatu egingo duela, alegia, Euskadiko Gas Elkartea era guztietako zerbitzuetako konpainiaren hazi bihurtuz, «utility» motakoa-edo, negozio berrien komertzializazioa zein telekomunikazio-zerbitzuak, guztiak, eskaintza-eskema integratuan bilduz.

1.2. Satellite bidezko telebista digitala, kable bidezko telebistari aurea hartuz

Esan dugunez, zuntz optikoa ezartzean Euskadi aitzindari izan arren eta, gai honetan, Autonomi Erkidegoen aurretik joan, gaur egun ez dago diferentzia nabarmenik.

Orain arte, satellitearen bidezko plataformek (DTH) egin dute Nafarroan eta Euskadin dagoen kanal anitzeko eskaintza –1997an sortu eta bideratutako bi kanal digitalak zein satellite-kanal analogiko eta irekiak (Directed Broadcasting Satellite, DBS), Astra eta Eutelsat satelliteetan kudeatzen dutenak, hain zuzen ere–.

Hartara, gaur egun, DTHk gidatzen du ordaintutako telebistaren banaketa eta, kablearen aldean, oso aurreratuta dago. Ordaintutako telebistaren programa-sorta DTH-sistematzen gauzatzen ari da eta kable-sistemak satelitean eduki ditzake, luzaroan, menpekotasun eta erreferentziak oro.

Peio Sarasola (Sarasola 1998) ETBko programaketa-zuzendariaren ustez, kable bidezko telebistaren egoerak garapen geldoa adierazten du DTHren aldean, eta geldoa den heinean, arriskutsua ere bada eta ondorio zalantzarriak ditu.

Seguraski, ordaintutako telebistaren eremua kablearen eta satelitearen artean banatuko da, baina ez da batere segurua kableak lehentasuna izango duen ala ez; gainera, berandu jaiotzeaz gain, DTHko kudeatzaileek jadanik beteta zeukaten merkatu batean sartu da kablea.

Badago hirugarren modu bat, "lur gaineko telebista digitala", RETEVISION enpresa esperimentatzen ari dena.

Javier Allende EUSKALTELeke idazkari nagusiak dioenez (Allende 1998), zenbait arazo ikusten dizkio kableari satelite bidezko telebistaren aldean, azken honek egiten baitio konpetentzia aurrekoari.

- Auzo-elkarteen baimenaren premia: fatxadak berrizatzeko politika egin ondoren eta, dagoeneko, antenak ordezkaturik daudenean, fatxadetan zehar kableatzeko orduan arazoak sortzen dira.
- Kaleak zulatzeke udaletxeen baimenak: zuntz optikoa gas naturalarekin batera gutxitan sartu da, ez da leku askotara iritsi.
- 500.000 biztanle baino gehiago bizi diren barrutietan, zerrenda zabaleko sarea ipintzeko obligazioa dago Euskal Autonomi Erkidegoan.

Iñaki Erguin Cabledis-eko zuzendari eta Cable bidezko Banaketa Zerbitzuetarako Elkarte Espainiarraren (ESPACABLE) sortzailearen iritziz, hauek dira kable bidezko telebistak arrakasta izateko dituen faktoreak:

- Emanaldiaren kalitatearen bermea.
- Zuzeneko emanaldietan, mantenimenduaren prestutasuna eta hurbilpena.
- Kablearen bidez eskainitako sustapena.
- Dirusari egoki eta konpetigarriko abonamendua, ordaintutako telebistaren beste kanalen aldean.
- Ekimen pribatuari joko ematea.

Aipatutako analista honen iritziz, satelitearen bidezko telebista digitalean eta tokiko zenbait telebistatan izandako esperientziaren arabera, produktu espezifikoak erosteko benetako lehia dagoela esan daiteke; gainera, eksklusibak sinatzen hasiak dira eta prezioak goraka doaz. Haren ustez, funtsezkoena oinarrizko pakete mardul bat eskaintzea da, gutxi gora-behera 30 bat kanalen bidez, (zine-, dokumental- eta musika-eskaintzaz osaturik), prezio egokian (2.000 pezeta, adibidez); horrela, mantenimendu on bat ziurta daiteke (Erguin 1998).

EUSKALTELEN aburuz, Euskal Autonomi Erkidegoko merkatu-kuota % 25era iritsiko dela pentsatzea aurreikuspen optimista da, jendeak ez baitu ordaintzeko ohiturarik.³

Argi dago, ikus-entzunezko industriari dagokion kontzeptu berria sortzen ari da: gaikako *bussines planari* oso estu egotikutako ekoizpen-egitura, urtean 300-400 milioi pezetako aurrekontua izango duen programaketa, kasurik onenean.

Beraz, teleikuslearen telebista-kontsumoaren azturak dezente aldatzen ari diren unean bizi gara. Gaur egun, telebistaren erabiltzaileok ondorengo sarbideak dauzkagu eskura: bi kanal publiko estatal, bi kanal publiko euskaldun (Euskadin, jakina), hiru kanal pribatu eta, bi plataforma digitaletatik (Canal Satélite eta Vía Satélite) bat kontratatzen baduzu, 50 bat telebista-kanal baino gehiago; horrezaz gain, satelite bidezko beste hainbeste kanal, libreki parabolikora iritsiko direnak; Zarautzen eta Urnietan bizi bazara, berriz, beste 25/21 kanal dituzu eskura. Telebistaren eskaintza-gorakada nabarmena!

2. Nafarroa eta Euskal Autonomi Erkidegoko lehiaketak

2.1. Nafarroan onarturiko lehiaketa

Nafarroan, foru-elkargo osoa hartzen duen barruti bakarrean, kable-kudeatzaileak finkatzeko mugimendu asko gertatu ondoren, lehiaketa egin eta RETENA elkarteak egin da kable bidezko kudeatzaile berria; Nafarroako gobernuak babesturik, kable bidezko telebista eta telekomunikazioen garapenaren alde egin du apustu, gogo biziz (Arregi 1998).

Nafarroako Gobernua, ondorengo bi entitateon bitartez da RETENAREN partaide: Nafarroako Aurrezki Kutxa (CAN), % 21'12; Sodena, % 7. Aldi berean, ondorengo hauek dira Retenaren sozioak: Irutek, % 32' 82; Ineuropa, % 21' 12; Iberdrola, % 12' 94; Diario de Navarra, % 5; eta Cementos Portland.

Hauen iritziz, zerbitzu-emankizunak 1999ko hasieran abiatuko dira; lehen 10 urteetako inbertsioa 14.500 milioi pezetakoa da; telefonia-kudeatzailea Retevisión-en kargu egongo da.

Nafarroako Aurrezki Kutxaren (CAN) etorkizuneko hazkunderik handiena telekomunikazioarekin lotuta dator eta, horretarako, Nafarroako Gobernuko presidente Miguel Sanzek esan berri du Madrilerako joango dela kablearen inguruko operazioak behatzera. Gainera, Endesa, Telecom Italia eta Unión Fenosa-koekin izan ditu harremanak.

Bestalde, ez da ezagutzen Telefónica Española delakoak Nafarroarako duen kable bidezko proiektuak benetako zerbait bihurtzerik duen, Retenarekin konpetentzian. Proiektu hori Telefónica Cable Navarra deitzen da eta, hartan, ondorengo enpresa hauek dute parte: Telefónica (% 69), Caja Pamplona (% 20), Diario de Noticias (% 5). Nafarroako Unibertsitatea (% 1), eta bestelako batzuk.

3. Ikus, Canal Plus-en kasua. Bakarrik ibili da, ez du konpetentziarik izan, bai, aldiz, eskaintza erakargarria, hala nola zinea, futbola eta zezenak eta, halere, audientziaren % 10a ere ez du lortu.

2.2. Lehiaketa, Euskal Autonomi Erkidegoko barrutian

Kable bidezko telebistaren lege-arautze eta erregulazioa pixka bat atzeraturik eta izaera murrizgarriz osatuta dator (kable bidezko telekomunikazioari buruzko abenduko 22ko 42/1995 Legea). Zentzu honetan, oso beharrezkoa izan zen jarrera egindako lege-aldaketa liberalizatzaila. Araudi teknikoa atzerapenez heldu zen eta horren ondorioz, oraindik ez da amaitu barruti-, deialdi-, lehiaketa- eta kontzesio-prozesua.

Euskadin, lurralde-barruti osorako, kable bidezko telekomunikazio-zerbitzu publikoa esleitzeko lehiaketa publikoa 1998ko martxoaren 3an deitu zen eta, lehen esan bezala, Euskaltelek eskuratu zuen. Kontzesioak 25 urterako balio du, guxieneko inbertsioa 20.000 milioi pezetakoa da eta Fomentoko Ministerioak esleitu du. Orokorrean, Euskal Autonomi Erkidegoak 2.200.000 biztanle eta 750.000 etxe dituela esan daiteke.

Kable bidezko telekomunikazio-zerbitzu publikoa ekipo, sare eta instalazioetako ezaugarri teknikoek dagokie. Era berean, balio erantsia duten zerbitzuak eskaintzeko aukera ematen du, bereziki multimedia formato eta aplikazio informatikoei dagozkienak.

3. Kable-kudeatzaileak

3.1. EUSKALTEL Euskal Autonomi Erkidegoan

Estatu espainiarrean, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera telekomunikazioak partzialki liberalizatu zirenetik, telefonia kudeatuko duen kable-elkarte bat sortu da Euskadin, Euskaltel, zeinak telefoniarako eskaintzen dituen zerbitzuez gain, beste zerbitzu multimedia batzuk eskaini baititzake. Aldi berean, bigarren kable bidezko telebista-kudeatzailea da Euskal Autonomi Erkidegoan. Izatez, Euskaltelek aditzera eman duenez, Euskadin zuntz optikoko sarea ezarriz telekomunikazio-mailako eskaintza globala egin ahal izateko, 105.000 milioi pezeta inbertituko ditu 1998-2007 urtealdian. Horrela adierazi dute José Luis Larrea Euskalteleko lehendakariak eta Carlos Lambarri enpresa bereko kontseilari zuzendari orokorrak (Alberdi 1998).

Euskaltelek duen Planean, 35.0000 milioitako gehikuntza ageri da 1998-2007 urtealdiko inbertsioetan. Euskaltelek aurreikuspen duenez, kopuru osoaren % 55, Planaren lehen hiru urteetan eralgiko da.

EAEko telekomunikazio-kudeatzailearen aurreikuspenen arabera, telefoniarren merkatuaren % 28 eskuratu du 2007rako. Urte horretarako, 301.000 linea kudeatuko ditu EAEn, zeinetatik 246.000 sarbide zuzeneko lineak izango diren eta beste 54.000 zeharkako sarbidekoak.

Euskaltelek 4.000 milioi pzta. fakturatu nahi ditu 1998an, eta inbertsio hauek finantzatzeko baloreen merkatura jotzeaz gain, kapital-gehikuntzak egingo ditu: bata 1998an, eta bestea 1999an (Alberdi 1998).

Lau urteren buruan, EAEko biztanleriaren % 80ri sarbide zuzena egiteko aukera emango diola hitz ematen du konpainiak, eta, bost urteren buruan, berriz,

5.000 baino biztanle gehiago duten herri guztiei, hau da biztanleriaren % 90i.

Bestalde, konpainiak esan duenez, maiatzaren azken egunetarako, prest edukiko ditu beste zenbait zerbitzu, hala nola, internet, datu-transmisioa, telefonia publikoa, sare inteligenteak eta balio erantsiko zerbitzuak, adibidez, deien desbideraketa, ahots-kutxa, etab.

Telefonia mugikorrerako hirugarren lizentzia ateratzeko deialdira ere bere burua aurkeztu du Euskaltelek.

Euskaltelek, batez ere, telefonia-zerbitzuak eskaini eta telekomunikazio-sistemak betetzeko aurkezten du bere *bussines plan* delakoa. Kable bidezko telebista, berriz, merkatura sartzeko osagarri erakargarritzat dauka, bereziki, eta ez negozio errentagarritzat.

Euskaltelek esperientzia pilotoa egin du Getxon, non 2.000 etxe kableatu diren (Allende 1998). Kable-hornitzailea Cable Antena da. Bertan, froga tekniko bat egin da kanalek nola funtzionatzen duten jakin eta gai anitzeko eskaintzaren aurrean jendeak nola erantzuten duen neurtzeko. Kanalak zuzenean jaisten dira satelitetik hornitzaileira.

Lehen ere esan dugun arren, berriro ere esan beharra dago, kable bidezko telebistak ezinbesteko erreferentzia izango duela satelitearen bidezko telebista digitalaren programaketan (Garitaonandia 1998). Horrela Euskaltelek, une honetan, konpetitzaile handitzat jotzen ditu Euskadin satelitearen bidezko telebistak (Canal Satélite eta Vía Digital); beraz, oso kontuan hartu beharko ditu ondorengo hiru faktore hauek:

1. Cablevisión-ek eskainitako kalitatezko programa batzuk, eta, beraz, horiek erabiltzeko oso garesti ordaindu beharra.
2. VIA DIGITALaren programak, eskaintza zabaltzeko.
3. Interesgarri egingo duen eta eskaintza espezifikatuko duen programaketa propioa. Euskarak azken honetan du bere lekua.

Euskaltelek, harpidedunei bidalitako katalogo publi-informatiboaren arabera (Euskaltel 1998), "EAEko telekomunikazio-kudeatzaile orokorra izateko", ondorengo zerbitzuak eskainiko ditu:

- Oinarriko telefonia.
- Telefoniako zerbitzu inteligenteak.
- Sare pribatu birtualak.
- Kable bidezko telebista.
- Telezerbitzuak.
- Datu-transmisioa.
- Internet.
- Neurrira jarritako zerbitzuen garapena.

3.2. RETENA Nafarroan

RETENAK irabazi du lehiaketa Nafarroan, bera izanik aurkeztu den talde enpresarial bakarra. Nafarroako gobernuaren babesa du.

“Nafarroan onarturiko lehiaketa” izena duen atalean idatzi berri dugunez, Nafarroako gobernuak bereak dituen bi entitaterekin bidez esku hartzen du RETENAn: Nafarroako Aurrezki Kutxak (CAN) % 21' 12; Sodenak % 7. Aldi berean, ondorengo hauek ere RETENAREN sozioak dira: Irutel, % 32'82; Ineuropa, %21'12; Iberdrola, % 12'94; Diario de Navarra, % 5 eta Cementos Portland.

1998ko maiatzaren 5ean emandako prentsaurreko batean, Jose Manuel Arbalan elkarteko presidentek hamar urtetan 14.500 milioi pezetako inbertsioa egingo dutela zioen. Esleipen-epeko 25 urteak bete ondoren, berriz, 28.000 milioi pezetako inbertsioak egingo direla uste da. RETENA proiektuak 89 enplegu zuzen eta 2.100 zeharka bultzatuko ditu, elektrizitate-, merkataritza- eta eraikuntza-sektoreari atxikita (Arregi 1998, Unanue 1998)

RETENAKo presidentek esan duenez, kable bidezko telebistaz gain, ondorengo zerbitzu hauek eskainiko ditu: aisia, telebankoa, osasungintzako telezerbitzua, Internet, audio, datuak eta bestelako zerbitzuak. Era berean, eskualdeko telebista-kanal bat sortuko du eta Iruñean jarriko da abian; kobertura, ordea, poliki-poliki egokituko zaio. Zerbitzua lau urteren buruan ezarriko da, 10.000 eta 100.000 bizilagun dituzten lekuetan finkatzeko.

Kable bidezko telebista-eskaintzari dagokionez, berriz, oinarritzko paketearen hileroko kostua 2.500 pezetakoa izango dela aurreikusita dago, nahiz eta tarifa hau jaitsiko duten esperantza eduki. Telefoniari dagokionez, tokiko deietarako tarifak, kudeatzaile nagusiarenak baino % 10 txikiagoak izatea espero da, gainerako deiak RETENAREN arautze-gaitasunetik kanpo baitaude.

3.3. Kudeatzaile txikiak

Azken urteotan, Euskadin sortu diren kable bidezko telebista asko kable bidezko telebistatik baino bideo komunitariotik hurbilago daude. Pretentsio handirik gabeko kable bidezko udal-telebista bat baino gehiago aipa daiteke, bai eta lizentziarik gabe ari diren kable bidezko tokiko telebista asko ere. Adibide esanguratsuenak, zalantzarik gabe, kable bidezko telebista-sailean aitzindari izan diren bi hauek dira: Cabledis eta Urnieta Telebista.

3.3.1. Cabledis

Cabledis orain hamar urte sortu zen, Zarauzko Udaletxea, Gipuzkoako Diputazioa, El Diario Vasco, IBV Korporazioa, Ikusi eta Ibercontaren kapitalei esker. Hogeita bost (25) telebista-programa eskaintzen ditu, batzuk lurringuruko uhinen bidez, besteak satelitearen bidez, lau TPS bereziak, espazio erotikoak eta tokiko informazioa. Bere hornitzaile nagusia Cable Antena da.

Cabledisen hastapenak oso apalak izan ziren, publizitaterik gabe kableatu izan behar baitzuten udalerrria, legearen muga-mugan jokatuz. 1995ean, 8.800 etxetatik, 8.000 kableaturik zeuden; 700, kable-sisteman harpidetuak. Harpidedunen *targeta* kultura eta egoera ekonomiko dextenteko bikote gazteei dagokie.

Cabledis AESDICAren partaide da (Cable bidezko Hedapen Zerbitzuetarako Elkarte Espainiarra) –elkarte honek 100.000 harpidedun ditu eta elkarrekin erosten ditu emisio-eskubideak, produktu hobekak prezio eskuragarriagoz lortzeko– (Aranbarri 1995: 91-92).

3.3.2. Urnieta Telebista

Urnieta udalerrri gaztea da. Dituen 5.200 biztanleen % 80, bertako kable bidezko telebistaren harpideduna da. Kable bidezko telebista hau 1992an sortu zen udaletxearen subentziopean, honi esker lokalak, ekipamendua eta kable-sarea lortuz. Gas naturalaren kondukzioa aprobetxatuz hedatu zen kable bidezko telebistaren sarea. Harpidedun bakoitzak 10.000 pezeta ordaindu behar izan zuen lotzeagatik. Ekoizpena eta kudeaketa udalerrian bertan kokaturik dagoen UBI produktorearen esku dago. Eta honek tokiko emanaldien ustiaketatuz arduratzeaz gain, produkzio partikularrak egiten ditu ETB eta Telecinco-rentzat.

Urnieta Telebistak astean bost egunez emititzen du (astelehen eta larunbatean ez dago emanaldirik). Egunaren 24 orduz, satelitearen bidez “modu irekian” hartzen dituen hamabost kanal eta estatu mailan hedatzen diren sei kanal emititzen ditu. Lantaldea osatzen duten bost lagunek hiru orduko programazio propioa egiten dute. Zati nagusia euskaraz egindako albistegia da –sumarioak, gaztele-raz–. Luis Zaldua Urnieta Telebista eta URNIETATELen arduradunaren ustetan (Zaldua 1998), euskarari lehentasuna ematea da helburua, mezu nagusiak gaztelaniaz ere emanez. Programaketa propioa honela osatzen da: albistegia, kirol-emakinuzak, kultur agenda, programa bereziak (jaiak eta tokiko gertakariak) eta igandeko meza. Bestaldekik, Urnieta Telebistak akordio estrategikoa lortu du EUSKALTELekin (oraindik ez dago sinaturik) Urnietan, kable-kudeatzaile honek duen proiektuaren baitan, kable bidezko telebista ustiatzeko.

4. Ondorioak

1. Euskadi zuntz optikoaren sarea sortzen eta beste Autonomi Erkidegoen aurretik joan den arren, gaur egun ez dago diferentzia handirik Erkidegoen artean.
2. Euskal Autonomi Erkidegoan zein Nafarroan barruti bakarreko sistema aukeratu da.
3. Nafarroako kable-kudeatzaile berria RETENA elkarte da, Nafarroako gobernuaren babes duena.
4. Euskadin telefoniarako kable-kudeatzaile elkarte bat sortu da, EUSKALTEL, multimedia zerbitzuak eskain ditzakeena eta, gainera, Euskal Autonomi Erkidegoko bigarren kable bidezko telebista-kudeatzailea dena.
5. Nortasun-zeinuen eta berezko hizkuntzan, euskaraz, adierazten den euskal kulturak gaikako kanalen premia dute, zeinen bidez gure herriarentzako zerbitzu eta edukietan eragina eduki dezakeen.
6. Kable bidezko telebistan gaztelaniaz emititzen duten kanalen lehentasuna dela-eta, are gehiago desoreka daiteke euskarazko programen eskaintza.

Bibliografia

- Alberdi, Aintzane (1998): "Euskaltel invertirá 105.000 millones en diez años", *Egin*, 1998-05-12, 30.
- Allende, Francisco Javier (1998): Euskaltel-eko zuzendari orokorra. Teresa Agirreazaldegirekin egindako elkarrizketa. Zamudio (Bizkaia), 1998-02-24.
- Aranbarri, Luis Alberto (1995): *Proyecto de telecomunicaciones: informe de situación en función de los contenidos*, Iurreta (Bizkaia), Txostena.
- Arregi, Silver (1998): "Retena controlará el negocio del cable en Nafarroa", *Egin*, 1998-05-6, 30.
- Erguin, Iñaki (1998): Cabledis-eko zuzendari orokorra. Teresa Agirreazaldegirekin egindako elkarrizketa. Zarautz (Gipuzkoa), 1998-02-19.
- Garitaonandia, Carmelo (1998): UPV-EHUko Kazetaritza Saileko Komunikazioaren Historiako katedraduna eta kable bidezko telebistari buruzko ikertzailea. Carmen Peñafielekin egindako elkarrizketa. Leioa (Bizkaia), 1998-02-6.
- Sarasola, Peio (1998): Euskal Telebistako (ETB) programaketa-zuzendaria. Carmen Peñafielekin egindako elkarrizketa. Iurreta (Bizkaia), 1998-03-5.
- Unanue, A. (1998): "Sei hilabeteren buruan kable bidezko telebista eskaintzea espero du Retenak", *Euskaldunon Egunkaria*, 1998-05-6, 17.